

PROPOSAMENA, UDALBATZAK HARTUTAKO ERABAKIEN JARRAIPENA EGITEKO BATZORDE EZ IRAUNKORRA SORTZEKO

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 90., 91. eta 148. artikulua oinarri, **proposamen** hau aurkezten du, Udalbatzak hartutako erabakien jarraipena egiteko Batzorde Ez Iraunkorra sortzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Oposizioko taldeek hainbat tresna ditugu Udalaren jardura politikoan parte hartzeko; horien artean nabarmentzekoak dira hilk hil taldeek aztertu eta onar daitezten Udalbatzari aurkezten dizkioten mozioak.

Errealitateak erakusten digunez, onartzen diren mozioetako asko, baita aho batez onartzen direnak ere, ez dira gauzatzen edo atzeratu egiten da horiek martxan jartzeko unea, zer dela-eta atzeratu diren azaldu gabe. Horregatik, beharrezkoa iruditzen zaigu Udalbatzak hartutako erabakien jarraipena egiteko batzordea sortzea.

Hori dela eta, PROPOSAMEN hau aurkezten dugu, Udalbatzak hartutako erabakien jarraipena egiteko BATZORDE EZ IRAUNKORRA SORTZEKO:

1. Xedea: Udalbatzak hartutako erabakien jarraipena egitea, betetzen direla egiaztatzeko eta, bete ezean, horren arrazoiak azaltzeko.

2. Kideak:

Udal talde bakoitzeko ordezkari bana, boto haztatuarekin.

3. Iraupena:

24 hilabete.

4. Maiztasuna:

Hilero bilduko da.

Donostia, 2017ko martxoaren 10a

Izpta.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.